

ERDI-AROKO ERRI EUSKALDUNEN IDAZKERA

(III)

Jarrai dezagun antziñako idaztien azterketa. Gaur, lau larriki artuko ditugu ikerketa-gai. Kukulla'ko Donemillian'en lekaidetxeakoak dira danak. Aipatutako Landazuri'ren liburuan, eta D. Luciano Serrano'ren «Cartulario de San Millán de la Cogulla»n, aurkitu dezazkezu.

1 — Aurreneko Larrukia 1051'koa da. Ibeltzaren 30'ekoa. Eta bertan agertzen diran erri-izen euskaldunak auetxek dituzu:

| | |
|-------------|----------|
| IZPEA | LUNO |
| BUSTURI | GUERNIKA |
| BARETZI | GORRITIZ |
| BERMEIO | MUNDAKA |
| UDAIBALZAGA | BUSTURI |

ARMENTI

1.B — Izenonondo edo adjetibu eran berriz, itz auek ematen dizkigu:

| | |
|--------------------|---------------|
| PAMPILONENSIS | NAIALENSIS |
| ABADIENSIS | MUNCHIENSIS |
| MOLINABARRENSIS | ANATHIENSIS |
| BARAKALDONENSIS | ABERACANENSIS |
| ESCEVERRIANICENSIS | |

2 — Bigarren idazki zarra, 1075'koa da. Ez du egunaren eta illaren zeastasunik ematen, eta bi euskal itz bakarrik dakarzki:

ARANDIA

HURRIETA

3 — Urte ortakoa berekoa da irugarren larrukia ere. Epailaren 29'koa. Eta onatx bertan agiri diran erri-izenak:

LANGRARIZ

URDUNIA

SALINAS DE ANNIANA

VILLA MATERNI

BERROCIA

LANGREIZ

GUINEA

BANIOS

ERTANGA

CURCUERA

ALZARO

FAIRUELAS

LHODIO

FORNELLOS

VILLANOVA IN MENA

PAMPILONA

4 — Laugarrena, 1082'garren urtekoa da. Dagonillaren 17'koa. Ikus bertan datozen errien izenak:

UARTHE

IBARGOROCIKA

MUNKIA

CINAURRIZA

TUDA

VERMELIO

ABADIANO

EGGANO

BIZCAHIA

— Errien izenez landa, jakingarri asko aurkitu ditugu lau idazti zar auetan, baiña danak emen azaltzerik ez degu, luzeegia irtengo lizaiguke bâ gaurko ikerketa-saio au. Ala ere itzegin dezagun astiroxeago aurreneko larrukiaz, izugarri garrantzi aundikoa bait da: urte bereko beste larruki batekin batera, Bizkai'ko dokumenturik zaarrena. Larruki ontan agertzen da gaiñera, zalantzarik gabeko lenen Bizkai'ko Jaunaren izena: Enneco Lopez.

Ain zuzen Enneco Lopez jaunak eta Tota bere emazteak, Garsia Araba'ko gotzaiari egin zioten emaitza bat agertzeko

idatzia izan zan 1051'ko larruki au. «Ego igitur senior Enneco Lopez, gratia Dei comiti, una cum uxore mea domna Tota, concedimus tibi patri spirituali Garsia, Alavensis terre episcopo...».

— Laterazko idazkeraren arauz «comiti» ez baiña «comes» bear zuan izan. Baiña erdi-aroko Lateran, gizakumeen, errien eta lurren, lanbideen eta tituluen izenak, ez ziran deklinatzen, ez ziran jokutzen. Ablatibu-eran artzen ziran, eta orrela beti berdin erabili, maizenik beintzat. Gero ere, Lateratik sortutako Erromantzeek, eta Euskerak berak, ablatibu-eran jaso zituzten Laterari artu zizkioten itzak: PAKE, LEGE, ZERU, ERREGE... eta abar.

Agian norbaitek «comiti» ez dala ablatibua esango dit, «comite» baizik, eta ala da. Lumak uts egin ote zion idazle arri «comiti» idatzi zuanean? Baleike; baiñan ez ziorik gabe, «e» eta «i» maiz naasten bait ziran erdiaroan: «e» idatzi eta «i» irakurri. Gure lumalari arek «i» idatzi zuan «e» irakurtzeko.

— Ortografiari buruz, lateraz eman dizkitzudan itz oietan, gure gaurko «Ñ»ren otsa agertzeko lau izki-alkarketa ezberdiñ ikusiko dituzu:

NN («Ego... Enneco»)

MN («domna Tota»)

NI («Ego senior...»)

Iru oietaz gaiñera, GN, NG, eta, gaurko portugaldarrek lez, NH ere erabiltzen zituzten. Garai artako ortografiaren naspillaketa zenbait aiñakoa zan igartzeko, aski siñale zorrotza.

— Larrukian, Enneko Lopez'ek kondea dala esaten digu, baiña nongo kontea zanik ez digu agertzen. Araba'koa?, Bizkai'koa?...

Bizkai'koa!, zalantzarik gabe; Bizkai'ko aurreneko Jaun eza-guna. Berak ez du «JAUN» itzik erabiltzen. Ezta, urte artako beste larrukian, Enneko au aipatzen duan Garzia Naparroa'ko erregeak ere. Ona, erregearen izkera, «Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco»tik jasota (526 orrialdea): «Plúgonos a nosotros juntamente y al Conde don Iñigo Lopez que es gobernador de aquella patria que se llama Vic. y Durango...».

Ikus dezakezunez erregeak «Jaurle» edo «Gobernadore» zala Bizkai'n gure Enneco au diosku. «Jauna» izenik ez da garai zar-zar aietan oraindik agertzen.

— Atsegiñ izango zaizu Garzia erregeak larruki ua zergaitik idatzi zuan jakitea. Entzun: bai omen zan antziña artan, Bizkai'n, jauntxoek zakurrak lekaidetxeetara bidaltzeko oitura; an lekaideek zakur oiek beren kontura zaindu ata mantendu zitzaten. Lekaide eta abade eta apaizen adiskide zan, nonbait, erregea, eta oitura ori eragozteko idatzi zigun bere larrukia.

— Garai bereko beste larruki batean (1053?) gure Eneko au eta Tota bere emaztea, San Juan de la Peña'ko lekaidetxeari Gaztelugatxe'ko Donibane eskeintzen agertzen zaizkigu.

Gartzia erregea, Gartzia V'a da, Santxo III «Nagusia»ren semea. «Gartzia Naxerako» esan oi zaio edestia-zear; Errioxa'ko erri ua bere egoitza biurtu bait zuan.

1051'ko larruki ontan eta baita beste larruki batzuetan ere «regnante in Pampilona, in Alava et in Castella Vetula», «Iruña'n, Araba'n eta Gaztela Zarrean errege» zala, esaten digu.

Baiña garai artan Gaztela'ko errege Fernando I'a zan, Gartzia'ren anaia; eta Aragoi'koa, Ramiro I'a, beste bien anaia au ere, III Santxo Nagusiak, eriotzakoan, bere iru semeen artean zatitu bait zituan bere lurraldeak. Zarrenari, Gartzia'ri, Euskal-erria, orduango Euskal-erria, Errioxa eta Buruba barruan zituana, eman zion; Fernando'ri Gaztela; eta Ramiro'ri Aragoi.

Ez ote zuan Gartzia'k zatiketa ori ondo eramán, eta Gaztela'ko erregetzat ote zeukan bere burua?

Edo ta... zeri deitzen ote dio «Gaztela Zarra»? Ez bait du beñere «regnante in Castella» esaten, «regnante in Castella Vetula» baizik.

Ordurako I Fernando'k Gaztela'ri erantsia zeukan Leon'go erreñua, Tamaron'go borroka-lekuna menderatu bait zuan III Bermudo ezkon-anaia, eta, baita're, bereganatu bait zuan, Leon'go errege lez, gaur Portugal'ekoa dan Koinbra uria, mauritarren aurka borrokan. Tamaron'go gudakata artan il zan III Bermudo.

Leon Fernando'rentzat utzita, beretzat nai ote zuan Gartzia'k Gaztela Zarra? Dana dala, Fernando'ren aurka gudan il zan, Atapuerka'n, Gartzia ere. Baiña guda ura ez zuan berak sortu; Fernando'k sortu zuan. Eta orduan Naparroa'ko azken-erria zan Atapuerka'ra ere, maltzurkeriz eta gezurra-bidez eraman zuan Gartzia.

Beti izan dala Espaiñi, Euskalerrarentzat gezurti!

Eta ez Gaztela'ren aldetik bakarrik; baita Aragoi'ren aldetik ere. Fernando'k baiño leenago eraso bait zion Gartzia'ri Ramiro'k, Naparroa'ko Sarkalde-lurrak ebatsi naiean.

Tafalla'ko gudu-ekintzan menderatu zuan Gartzia'k Ramiro. Eta menderatuko zuan Fernando ere, onek traizioz eta izkera gozo zikiñez atzipetu ez ba'lu. Errege ernea izan dan IV Gartzia «Naxerakoa».

Bein baiño geiagotan idatzi zuan «Gaztela Zarreko errege» zala, —«regnante in Castella Vetula»—, eta baita bere semeak, Santxo Peñalen'goak, ere. Norbaitek Naparroa'ko erregeek aipatzen zuten «Castella Vetula» ori Bureba, Oña, eta Oka-mendiak zirala diote, baiña lurralde ori dana Araba zan orduan eta Araba esaten zitzaion, ez Gaztela. Edestilari arabitarrek ederki bereizten dituzte Araba eta «Al Kile». «Al Kile»k «Gazteluak» esan nai du: «Gaztelueta», gaurko Gaztela, eta azkoz sarkalderago zegoan, Palentzi'ko iparralderuntz. Euskotarren aurka gudan ari zirala esaten duten guztietan Bureba'ko lurraldeetan ari ziran eta Bureba'ko errien izenak aipatzen dituzte. Gero ere, XVI mendea ondo sartu arte Arriaga'ko Batzarretara etorri oi ziran Miranda eta Bureba'ko lurralde guzia.

— Esan dezadan itztxo bat «Garsia» gotzaiaz. (Ots. dokumentu ontan bertan, batzuetan Garsia «I»z idazten da: «Garsia episcopo», eta beste batzuetan «e»z «Garsea rex». Len esan dizudan bezela, garai artan «E» eta «I» errez nasten bait ziran).

Larrukiak dio, Garsia au Araba'ko Gotzaia zala. Armenti'n bizi zanik ez diosku. Araba'ko gotzaietan izen ortako irugarren gotzaia izan zan; 1037'tik 1055'era. Bere egoitza non zuan ez dakigu; dokumentuek erakusten digutenez, Armenti'ko lenen gotzaia Bela izan bait zan 1062'ean.

Asi gaitezen aurkeztu dugun zerrendako errien izenak aztertzen. Ez danei, arazoren bat aurkezten dutenei bakarrik baikizik so egingo diegu.

IZPEA. «Subtus Penna», au da: «Aitz-Pean», zegoala dio larrukiak: «Monasterium iusta maris, cui vocabulum est Sante Marie de Izpea, subtus penna, in territorio Busturi». Aizpea da, beraz, Izpea ori. Bizkaieraz, Axpea. Goiz asi ziran, dirudianez, gure toponimo edo toki-izenak, itxuraz aldatzen. Ain antziñatik asitako itxura-aldatze orrek etimologintza zein zaila dan adierazten digu. Oso maiz, etimologilarien usteak uste txit ustelak gertatu oi dira; askotan, errien izenak zenbat iraulketa eta aldaketa egin dituzten jakiterik ez bait dago.

«Monasterium... de Izpea». «Monasterium» itza maiz agertzen da larruki auetan eta baita garai artako beste larrukietan ere. Zer? Euskalerra osoa Lekaidetxez eta Abatez eta Lekaidez beterik ote zegoan? Ez.

Geien-geienetan, gure edestiko larrukietako «Monasterium» oiek ez dira lekaidetxeak: soilki elizak dira, eta, askotan, basiliza arruntak. Eta bertako abatak, apaizak dira; eta bein baiño geiagotan, apaiz ez diran baseliz-zaiñak, «ermitañuak».

BARETZI. Orrela, «TZ»z irakurri zuan Landazuri'k; Luciano Serrano'k ordea, BAREIZI. Arabarraren irakurkera egiten degu gure, gizon zintzoa bait zan ua, Serrano'k berriz, larrukien idazkera bein baiño geiagotan eraberritzen bait du. Dana dala, BAREITZI Bizkai'ko itsasaldean non dagoan ez dakit. «Debe tratarse de Barezi o Parisi» dio Estornes Lasa'tar Bernardo'k (Encic. Ilus. P. V.).

BERMEIO (1051'ko idazki ontan), eta VERMELIO 1082'koan, gaurko Bermeo dira. Bai jakingarri izango litzakela gure erriek, edestia-zear, idazkietan agertzen dituzten aldaketaz ezagutzeal

GUERNICA. Idazkera aldatuaz, «C»kin idazten du Serrano'k. Gernika au, Bizkai'koa da, bai bait zan Araba'n beste Gernika bat, Donemillian'go «Burni-Barren Larrukian» agertzen dana. Norbaitek, Araba'ko Gernika ori gaurko Miñano Beikoa zala dio, baiñan burni-barren larruki artan bertan Miñano, MENGANO lez agertzen da: «Mengano Goyen» eta «Mengano» beste xeetasunik gabe. Etxegarai'tar Karmelo ibilli zan

Araba'ko Gernika ori non zegoan jakin naiean («R.I.E.V.», I, 1910). Ez zuan nai zuanik, ziurki idoro aal izan. Dana dala, Gernika ori Araba'ren iparraldean zegoan, Luciano Serrano'ren iritziz, gaurko Miñano Beikoa'ren alboan.

MUNDAKA. Serrano'k «c»kin. 1085'garren urteko larruki batean Mundaka, MONTACHA ikusiko duzu. Lumalari arrotzen mirariak.

ARMENTI. Au, Arabakoa da, ez Trebiño'koa. Batzuetan ARMENTEGI, eta beste batzuetan ARMENTEI. Beiñere ez «H»kin. Ala ta guztiz, ez dakit nik zergaitik, —eta beraiek ere ez—, gaur batustanoek «H»z idazten dute «AR», «arri» esan nai duala uste dutenean, eta «AR»ez asten diran itz guztiak «arri»tik sortuak diranean; eta baita ez diranean ere. «Harri», «Harresi» eta abar. Baiña baita arriarekin zer ikusirik ez duten «Harma», «Harmatu», «Harrapatu», «Harro», «Harrotu», «Harpoi» eta «Hartz»; «Harmonio», «Harmonizatu», «Hartu», «Harbi»...

ABADIENSIS, «abadiñotarra» da.

MOLINABARRENSIS, «bolibartarra». Gaurko Bolibar, BONIBAR, agertzen da batzuetan, eta, Araba'koa, burni barren larrukian, BORINIBAR.

NAIALENSIS'ek «Naxera'koa» esan nai du. NAXARA ere idatzi oi zan Errioxa'ko erri au Euskalerra zan orduan, eta Euskalerriko uri nagusia gaiñera, bertan jarri bait zuan bere bizitokia Gartzia V erregeak.

MUNCHIENSIS. 1082'ko larrukian MUNKIA agertzen zai-gu, «K»rekin; 1051'koan «CH»rekin. Antziñako, idazle aiek «K» ota adierazteko, batere arau ziurrik gabe, batzuetan «CH» erabiltzen zuten, besteetan «C» edo «K» edo «Q».

ANATHIENSIS. «Arratiarra» adierazi nai digu. Au da lau dokumentu auetako errietatik «H»z idatzita agertzen diran bostetatik bat. Besteak LHODIO, BIZKAHIA HURRIETA, eta UARTHE.

Aztertu ditzagun «H» auek, eta ikusi dezagun zer izkiren orde zauden idatziak. Ez bitzat «J»ren orde, aize-soñu ori Gipuzkeran gaztelerazko «I» lez eta baita, leguntxeago «H» lez Iparralde'ko euskera batzuetan, —ez denetan—, oso berria bait

da gure izkuntzan. Ez du noski iñortxok ere uste izango sekulan emen BIZKAJIA esan danik!

LHODIO'n, zalantzarik gabe, «H»a «L»ren ostean, gaurko «LL» adierazteko da. Eta baita beste dokumentu zarretan agertzen diran OLA itzetik sortutako erri-izenetan ere: OLHABARRRE, OLHAURI eta abar (Ollabarre, Ollauri...).

ANATHIENSIS ontan eskierki «TH» oiek «T» bustia adierazinaiz dute: «TT». «Anattiensis».

Eta, «BIZKAHIA»n? Oso-oso-oso gutxitan ikusiko duzu Bizkai «H» orrekin. Beñere ez nominatiboko azken-«a» ori gabe, BIZKAI, agertzen danean. Beraz, BIZKAJI esaten ez ba'zan ez zan BIZKAJIA esango. Zer adierazi nai ote du bâ «HI» oiek? Sinismeneko egi lez, ziurki, eskierki, ez dago emen ezer esaterik, baiñan, nere ustez, «Y» adierazten digute: BIZKAYA, edo, BIZKAIYA, donostiarrek DONOSTIYA, ala azkoitiarrek DONOSTIXA esaten duten lez. Zergaitik ez zuten, «IH»ren orde, «Y» erabili, izki ori betidanik laterak ezagutzen zuan ezkeror? Bâ... askotan «Y» gure «I» adierazteko erabiltzen zutelako: ARANGUYZ, SALLURTEGUY... Ots, gañera: Bizkai «H»z, BIZKAHIA agertzen zaigun dokumentu ontan bertan, lerro batzuek lentxeago, «H»rik gabe, BIZKAIE, azaltzen zaigu: «in termino Bizkaie»! Bizkajia esaten ez zalaren siñale zorrotza.

ABERACANENSIS, «berangotarra» da, eta BARAKALDONENSIS («C»kin ua, «K»kin au), zer dan esa bearrik ez da.

LANGRARIZ. Dokumentu ortan bertan LANGEIZ bezela ere agertzen zaigu. Eta Burni-Barren larrukian, LANGRARES. Gaurko Nanclares da.

URDUNIA (Orduña), VILLA MATERNI (Villamaderne), ERTANGA (Tertanga), ALZARO (?), CURCUERA (Corcuera), BANIOS, FORNELLOS eta FAIRUELAS (?) (azkeko bost auek gaur ezabatuak diran errixkak), eta orduan euskaldun zan Mena Araneko Billanueba, Euskalerraren sarkaldean daude.

ANNANA (Añana), Gatzaga'koa, erri zaarra da, amargarren mendeko larruki batean agertzen bait da bere izena.

HURRIETA, —JHURRIETA, 1072'ko dagonillaren 28'ko lar-
ruki batean—, Bizkai'ko Yurreta da; «in confinio Duranci»,
«Durango'ko mugetan». Argi ikus dakezu «H» orrek eta «JH»
izkiek oraingo «Y» adierazi nai dutela. Donemillian'go Burni-
Barren larrukian ere Araba'ko Yurre onela dago idatzia: IHU-
RRE.

ARANDIA, Yurreta artako «monasterioaren» lurralde bat
zan. Beñere ez dut oraindik aurkitu ARAN «H»z idatzia. Ala
ta guztiz (berak ere ez dakite zergaitik eta zertarako), gaurko
batustanoek «H»z idazten dute Aran eta «H»z baita're Aran'en
adar-itzak: «Haran», «Harana», «Haranbarri»... Eta baita Aran'
'ekin zer ikusirik ez duten «Haragi», «Haragitegi», «Harea»,
«Haritz», «Hari»...

UARTHE. Burni-Barren larrukian VARTE dago; «V»kin
eta «H»rik gabe. Serrano'k Varte ori UGARTE irakurri zuan.
«H»rik gabe, onek ere; «H» ori sekulan agoskatzen ez zalaren
eta lumalariak bere naiez jarri zualaren adigarri! Zergaitik
jarri ote zuan? UARTE entzun zualako noski, eta «T» busti
ori nola idatzi ez zekialako. Uarte au («Monasterium S. Vincenti
de Uarthe»), oraingo Muxika ote dan esan oi da.

TUDA Bizkai'ko erria zan, baiña gaur erri ua oraindik bizi
dan, eta, bizi ba'da, zer izenez ezagutzen dugun, ez dakit. Du-
dea'ko San Miguel dala diote.

EGGANO, oraingo ETXANO dugu. «TX» otsa adierazteko
batzuetan idazle aiek «GG» erabiltzen zuten: GOMEGBA (Go-
metxa); beste batzuetan, «X»: IRAXIENSIS (Iratxekoa), edo
«SC»: len aipatutako SCEVERRIANICENSIS (Etxeberritarra),
ala «SS»: ESSAVARRI (Etxabarri; Araba'n).

IBARGOROZIKA, Etxano eta Gorozika'ren artean zegoan,
eta TUDA bezela, UARTE'ko Donebixente'ren «Monasterium»-
aren «decania» edo maizter-lurra zan.

Gaur aztertzen ari geran 1082'ko larruki onek, «monaste-
rium» ua, eta bere bi maizter-lurrak, Kukulla'ko Donemillian'
'goari emanak izan zirala diosku. Emaillea, Lope Ennecones
izan zan, Izpea Donemillian'eri eman zion Enneco Lopez Biz-
kai'ko leenen Jaun aren semea.

Bizkai'koa ez ezê Araba'ko eta Gipuzkoa'ko Jauna badala, aitortzen digu larruki ontan Lope'k: «Ego Lope Ennecones unatim cum consotia mea domina Tielo... offerimus tibi...». Eta azkenean: «Ego senior Lope Ennecones, prolis de comite Enneco Lopuiz (sic), dominante Bizkahia et Ipuzcua et Alaba».

Agurtu dezagun bâ, Lope Ennecones au, bere emazte Tielo andrearekin batera, Bizkai'ko bigarren jauna lez.

Latiegi'tar Bixente